

{ datorrena } Iñaki Soto

Artelan digitalen enkanteak eta betiko asanbladen ajeak

kasturte amaierako bidaia antolatzeke polboroiak eta zozketak albo batera utzi gabe, *crowdfunding* garai sofistikueta bizi gara. Oraingoan, kanpaina globalekin zerikusia duen joera da, baina lehenago edo beranduago gure artean isla izango duela iruditzen zait. Aste honetan, Julian Assangeren defentsa legala ordaintzeko, arte digitalaren enkante batek 52 milioi dolar biltzea lortu du, Ethereum kriptomonetan.

Ez ahaztu: Wikileaks sortzailea Londresen dago preso eta AEBetara ez estraditatzeko borrokan jarraitzen du. Hango Administrazioak espioitzagatik zigortu nahi du, besteak beste. Guztira 18 kargu dira eta 175 urteko kartzela-zigorra ezar diezaiokete. Azken hamarkadetan AEBek, eurek bultzaturiko gerretan, egin dituzten eskubi-deen eta askatasunen aurkako delituen ebidentziak argitaratzeagatik zigortu nahi dute Assange. Sistema judizial britainiarrak arrazoia eman zion eta Auzitegi Gorenak bere estradizioa ebaluatu beharko du. Borroka legala ordaindu ahal izateko, Assangerek Pak izeneko artistarekin kolaboratu du, "Censored" izeneko NFT bilduma sortuz.

Goazen zatika: zer da NFT bat? Askok laburbilduz, blockchain teknologian oinarritutako artelan digitala. Kasu honetan, Pak artistak "Clock" obra enkantean jarri du, Assangerek preso igaro duen denborari erreferentzia eginez. Artelan digitalei buruz dagoen eztabaidari helduz, Pak-ek bere iritzia bota du: «Artea den ala ez eztabaidatzen jarraitzen baduzu, ziur aski, izango da». Erantzun biribila dela onartu behar da.

AssangeDAO ekimenekoek adierazi dutenez, «NFTren salmentatik bildutako irabaziak Assangeren lege-defentsarako funtsera eta kanpainara bideratuko dira, adierazpen-askatasunarentzat bere kasuak dituen ondorioei buruzko kontzientzia pizteko». Eta zer da DAO bat? Erakunde autonomo deszentralizatua (DAO) *online* komunitate bat da, kideek beren dirua batu eta blockchain de-

ritzon horretan oinarrituriko token-ak erabiltzeko aukera ematen duena. Kasu honetan, ziberpuntek osatzen dute AssangeDAO erakundea eta beren helburua «Assange askatzeko borrokan lagundu dezakeen komunitate eta sare konprometitu bat osatzea» da.

Iaz Telegram taldea sortu zuten eta presoaren familia-rekin harremanetan jarri ziren. Hauek lankidetzan NFTa enkantean jartzeko ekimena martxan zegoela esan zuten. Laguntzeko aukera proposa zen beraientzat. Free-RossDAO kanpainan inspiratu ziren ekimena antolatzerakoan. Ekimenak 12 milioi dolar lortu zituen Ross Ulbricht hackerraren defentsarako. "Dread Pirate Roberts" izenez ezagun egin zen Ross; Silk Road izeneko Interneteko merkatu beltzaren sortzailea da. Tamalez, mutikoa kapitalak zuritzeagatik eta abarregatik biziarteko

Artelan digitala salduz 52 milioi dolar bildu dituen taldea ziberpuntek osatzen dute eta beren helburua «Assange askatzeko borrokan lagundu dezakeen komunitate eta sare konprometitu bat osatzea» da

kartzela-zigorra betetzen ari da. AssangeDAOko lagunak informatikan trebeak izango dira, oso *ziber* eta oso pun-kak baina komunikazio politikoan justu dabilta.

Horrelako kanpaina batek nola funtzionatzen duen hobeto ulertzeko –eta alde nagoelako–, kanpainari ekarpena egiten ahalegindu naiz. Berandu, ordean. Kanpainak bost egun iraun du eta helburuak bete ditu. Azkar doa dena. Forora bideratu naute, eta dagoeneko saltsa dagoela ikusi dut. Asanblada zibernetikoan, arrakasta izan den ala ez, dirua nola kudeatu, bultzatzaileen dimisioak eta abar eztabaidatzen ari ziren. Asanbladetako *performance* tipikoa. Munduan zenbait gauza asko aldatu dira; beste zenbait, batere ez. •